

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA, HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORREKO IGARA IB.13 HIRIGINTZA ESPARRUKO SOCIEDAD VASCONGADA DE PUBLICACIONES SA-REN LURSAILAREN ALDAKETA PUNTUALA DELA ETA

I. DOKUMENTU HONEN AURREKARIAK ETA XEDEA

Helburu horretarako onartu eta sinatutako hirigintza hitzarmenean azaldutako arrazoiak direla eta, Sociedad Vascongada de Publicaciones SA jarduera produktiboa eta ez-produktiboa beste kokaleku batzuetan instalatzea erabaki du. Hortaz, epe laburrean, higiezinan dauden instalazioak ez dira erabiliko hasieran xedaturiko helburuetarako. Nolanahi ere, nabarmendu beharrekoa da Donostiaren eta *El Diario Vascoren* artean beti izan den loturak, sortu zutenetik, indarrean jarraitu behar duela, laster lehen mendeurrena beteko baitu. Hori dela eta, *Diario Vascoren* produkzioerik gabeko instalazioak lekuz aldatu behar dituztenez, gaur egun hainbat aukera aztertzen ari dira, eta horiek ez dute inola ere kontuan hartzen Donostiatik irtetea. Zehazki, *El Diario Vascoren* jarduera gero eta gehiago digitalizatuta dagoela ikusita, Sociedad Vascongada de Publicaciones SAren instalazio ez-produktiboak Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkera (Miramon) eramatea aztertzen ari da, beste aukerak beste.

Aurrekoaz gain, lekualdatzeko erabakiari laguntzen dio *Diario Vascoren* egungo kokalekua, bizitegi garapenez inguratua, hirigintza eraldaketarako egokia izateak, bizitegi garapen berrien eta zuzkidura publikoen bidez, eta horrek berekin ekarriko du hurbileko ingurunea eta Ibaeta auzoa birkualifikatzea, hiri sarea osatzeko, erabilera horien jarraipen gisa, lehendik daudenen osagarri izango diren kalitatezko espazio publikoak sortzeaz batera, plaza nagusi berri bat eratuko delarik eta auzoaren "erdigunea" bihurtuko. Gauzak horrela, bai Donostiako Udalak bai Sociedad Vascongada de Publicaciones SAk egokitzen jo dute gaur egun eraikinak okupatzen duen lursailean bizitegitarako espazio bat sortzea. Bi erakundeek uste dute, halaber, hirigintza garatzeko aparteko aukera bat dela, gero eta handiagoa den etxebizitza aske zein babestuen eskaerari erantzuteko, eta horrek onura handia dakarkiola Donostiari.

Oinarri horretatik abiatuta, proposaturiko sestraren gaineko hirigintza eraikigarritasunaren definizioa (ordenatu beharrekoa), hitzarmenaren arabera, honakoa litzateke:

- a. Proposaturiko bizitegi erabilerako eraikigarritasuna: 21.000,00 m².
 - i. Etxebizitza librea: 12.600,00 m².
 - ii. Babes ofizialeko etxebizitza: 4.200,00 m².
 - iii. Etxebizitza tasatua: 4.200,00 m².
- b. Merkataritzako edo hirugarren sektoreko erabilerako eraikigarritasuna: 600 m².
- c. Guztizko hirigintza eraikigarritasuna: 21.600,00 m².

Gainera, berdeguneetarako eta espazio libreetarako ekipamendu maila egoki bat aurreikusita dago, hiri kalitate handia bermatuko dutelarik, hegoalderantz irekitako plaza handi bat antolatuta, Illarraberriko egungo bizitegi eraikinetarantz doan bidearen aurrealdean.

Horiek horrela, eta indarreko hirigintza legerian ezarritakoa kontuan, Plan Orokorraren Aldaketa hau herritarrek parte hartzeko prozesuekin eta Herritarrek Parte Hartzeko Programa batekin osatu beharrekoa da.

Programa hori zehaztea da dokumentu honen xedea.

II. INDARREAN DAGOEN LEGE ESPARRUA

Herritarren Partaidetzarako Programa hori lantzeko lege esparruak honako xedapen hauek ditu osagai, besteak beste:

*** Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina (7/2015 EDL), 5.e artikulua:**

“Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko eta haien ingurumen-ebaluazioko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan egiazki parte hartzea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexuak aurkeztuz, eta administrazioetik erantzun arrazoitu bat jasotzea, administrazio horren eta kasuan kasuko prozeduraren araubide juridikoa arautzen duen legeriaren arabera”.

*** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 8.1 artikulua:**

Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

*** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 84.4 artikulua:**

Hirigintzako plana edo tresna egiteko akordioan, edo, hala badagokio, eskumena duen administrazioan izapideak egiteko aurkeztutakoa onartzeko izapidean, berariaz zehaztuko da, batetik, zein neurri eta jarduketa abiarazi behar diren administrazioen arteko koordinazioa sustatzeko eta, bestetik, zein den plana edo tresna egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko izango duten programa.

*** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108 artikulua:**

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerrriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

a) endaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeke erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.

b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.

c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

***Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24.ko 46/2020 Dekretuaren 26.2 artikulua.**

Plan orokorra egiten hasteko akordioarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat egin beharko da, dekretu honetan aurreikusitako baldintzen arabera.

***Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24.ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikulua:**

Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:

a) Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.

b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.

c) Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.

III. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

Hauek dira, besteak beste, programa honen eta hartan herritarrek parte hartzeko proposaturiko planaren helburuak:

* Herritarren parte hartzea sustatzea hirigintza dokumentua egiteko eta tramitatzeko prozesuan.

* Hirigintza agiriaren helburuak eta proposamenak aditzera ematea herritarrei.

* Jakitea herritarrek aipatutako helburu eta proposamenei buruz zer iritzi, iradokizun, ohar eta abar duten.

* Herritarren iritzi, iradokizun eta ohar horiek aztertzea, ahal den neurrian, hirigintza dokumentuko helburu eta proposamenak osatzeko.

* Parte hartze hori sustatzeko jarraibide formal egokiak zehaztea (proposamenak aurkeztu eta funtsatzeko saioak, horien inguruko eztabaida...).

IV. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN EDUKIA

1 Partaidetza faseak

Bi egite fase hauek planteatzen ditugu:

- * 1. fasea, hirigintza dokumentua hasi bidez onartu aurretik sustatu beharrekoa.
- * 2. fasea, hirigintzako dokumentua hasi bidez onetsi ondoren sustatzekoa.

Fase horietako bakoitzaren edukia eta helburuak ondoko atal hauetan azaldutakoak dira:

2. Parte hartzeko 1. fasearen edukia eta helburuak

Adierazitakoarekin bat, Plan Orokorreko aipatu aldaketa hasiera batean onetsi aurretik egitea proposatzen dugu. Hona hemen haren edukia eta sustatu beharreko jarduketak:

A. 1. jarduketa: saio publiko bat edo gehiago egitea, herritarrei irekiak, Plan Orokorreko aldaketaren helburuak eta proposamenak aurkeztu eta azaltzeko:

- * Hasiera batean, saio publiko eta ireki bat egitea proposatzen dugu, nahiz eta aurrerago egoki iritzitako beste batzuekin osatzea erabaki ahal izan.
- * Bilkura Donostiako Udalak zehaztutako tokian eta egunean izango da.
- * Udal teknikariek eta talde idazleak azalduko dituzte hirigintza dokumentuko proposamen eta helburuak
- * Saioan azalduko dituztenak: Hirigintza dokumentuaren helburuak eta proposamenak; hura eskuratzeko eta kontsultatzeko moduak; hirigintza dokumentua izapidetzeko prozesua; interesgarritzat jotako beste edozein gai.
- * Dokumentuaren helburu eta proposamenak aurkeztu eta azaltzea galdera edo eztabaida txanda batez osatuko da.
- * Bilkuran, D atalean aipatzen den gauzatze laburpenaren zirriborroaren kopiak jarriko dituzte bertaratuen eskura.
- * Akta bat idatziko dute, hirigintzako dokumentuaren helburuak eta proposamenak aurkezteko eta azaltzeko saioaren edo saioen edukiari buruzkoa, eta udal teknikariek prestatuko dute.

Bilkura horietan planteatzen dituzten iritziak, oharrak eta iradokizunak jasoko dituzte aktan, balorazioa egin ahal izateko bezain zehaztuta.

B. 2. jarduketa: jendaurreko bilkuran planteatutako iritzi eta iradokizunen gaineko balorazio txostena prestatzea:

* Azalpen saioa egin ondoren, hartan planteatzen dituzten iritziak, oharrak eta iradokizunak balioztatze txostena egingo dute.

* Txosten hori udal teknikariek prestatuko dute, eta iritzi eta iradokizunak onartzeko edo gaitzesteko arrazoiak jasoko dituzte hartan.

C. 3. jarduketa: Plan Orokorreko aldaketaren gauzatze laburpena.

* Herritarren eta interesa duten erakunde eta elkarten eskura jarriko diete behar duten dokumentazioa, batetik, hirigintzako dokumentuaren helburuak eta proposamenak ezagutu, eta, bestetik, haien iritziak eta iradokizunak adierazi ahal izateko.

* Dokumentazio hori bat dator hirigintzako dokumentuaren gauzatze laburpenarekin, dagozkion planoekin osatuta.

3. Parte hartzeko 2. fasearen edukia eta helburuak

Hasierako onespeneren ondoren, Plan Orokorren Aldaketa jendaurrean jarri eta ohiko bideetatik iragarriko dute. Horretaz gainera:

* Jendaurrean egoteko tramitearen osagarri, beste saio publiko bat izango da, herritarrei irekia, proposamenak aurkeztu eta azaltzeko, Udalak egoki irizten badio.

* Aurkezten dituzten alegazioen balorazioari buruzko txosten bat egingo dute, eta, hartan, haiek onetsi edo ezesteko arrazoiak adieraziko dituzte.

Txosten horretan, halaber, hirigintzako dokumentuaren aurkezteko eta azaltzeko bilkuretan planteaturiko iritziak eta proposamenak aztertuko dituzte.

V. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA PLAN OROKORRAREN ALDAKETA IZAPIDETZEAREN ESPARRUAN INTEGRATZEA FUNTSATZEA

Integrazio horrek, besteak beste, lan ildo edo fase hauei erantzuten die:

1. 1. fasea

Lan hauek ditu barruan:

* Herritarrek parte hartzearekin zerikusia dutenak.

Fase honetan egin beharreko lanak parte hartzeko 1. fasean aurreikusitako jarduketak sustatu eta gauzatzean dautza.

* Plan Orokorren Aldaketa egitearekin zerikusia dutenak.

Hirigintzako dokumentu horren prestaketa ixtea da egin beharreko lanen helburua, parte hartzeko 1. fasean planteatutako ohar eta iradokizunen balorazioa egin eta, hala badagokie, dokumentuan sartu ondoren.

2. 2. fasea

Lan hauek ditu barruan:

* Herritarrek parte hartzearekin zerikusia dutenak.

Fase honetan egin beharreko lanak parte hartzeko 2. fasean aurreikusitako jarduketak sustatu eta gauzatzean dautza.

* Plan Orokorraren Aldaketa egitearekin zerikusia dutenak.

- Hirigintzako dokumentua izapidetzen hasiera onespina eta jendaurreko erakustaldia barne daudela.

- Jendaurreko aldiaren edo parte hartzeko 2. fasean aurkezten dituzten alegazioen balorazioa egitea nahiz onestea edo ezestea proposatzea.

3. 3. fasea

Hirigintza dokumentua izapidetzen jarraitzea da haren helburua (behin-behineko eta behin betiko onarpenak eta beharrezkoak diren gainerako izapidetak), halakorik onartuz gero, onartutako iradokizun eta alegazioen arabera egokituta.